

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andres Ospitalea 2012/11/15)

Vildosolaren txaletari buruz galdetu dute, egoera penagarrian dagoelako	Hirigintza	2013ko abuztuan eremuko kudeaketa dokumentua aurkeztu zen. Vildosolaren txaletaren lur-saila publiko izatera pasatzea aurreikusita dago.
Trenbidea estaliko duen proiektu horrekin IGA kristaleria inguruan aparkalekuak kenduko diren galdetzen dute	Obrak	Inguru horretan bai kenduko dira, baina egingo den pasealekuaren albo batean aparkalekuak egingo dira.
San Andres ospitaletik Legarreko dorrera igogailuak 2 geldione izatea eskatzen dute.	Obrak	Proiektuan 2 geldione aurreikusi dira
Milafloreskoek ondoko eskaera hau egin dute: obrarekin aldatu den errepide-zatia asfaltarzea edo, bestela, produktu irrista-gaitzen bat botatzea	Obrak	Ez labaintzeko tratamendua baloratu da eta Mirafloreseko bizilagunekin hitz egin da. Azkenean, ez labaintzeko tratamendua hormigoizko zatia degradatzen denean ematea adostu da
Arratebide 18tik Itzioraino doan espaloia eraikitzeko proiektuaz galdetu dute	Obrak	Trenbidea bitan banatzeko obrekin batera egitea aurreikusi da. Behin-behinean, babestutako pasabidea markatu da new jersey hesiak erabilia
Ardantzako geltokiaren azpian dagoen oinezkoen pasabidearekin, Arratebide 2-4ko garajeen sarrera ondoan, zerbait egitea eskatu da	Obrak	Honen gaineko azterketa egin da eta espaloiak jaisteko hurrengo proiektuetan sartuko da
Mekolatik Arratebideraino eskailera mekanikoak noiz eraikiko diren galdetu dute	Obrak	Jarduera hau eremuaren hirigintza-garapenari lotuta dago eta berau ekimen pribatuaren menpekoa denez ezinezkoa da epeei buruzko aurreikuspen bat egitea
Ardantzako geltokiko irteeraren bihurgunean trenak zarata handia ateratzen duelako kexatzen dira	Obrak	Kexa hau ETS-ri jakinarazi zaio eta kontuan izango da Ardantza eta Amaña arteko trenbidea bitan banatzeko obra egiterako orduan

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andres Ospitalea 2012/11/15)

Saihesbidetik Legarre-Gainera dagoen sarrera irteera bihurtzea eskatzen dute	Udaltzaingoa	Behin trenbidearen estalduraren obrak eta Legarre kaleko zolatze lanak amaituta, egindako eskaria aztertuko da
Legarregain 1-3an abiadura murrizteko bandak ipintzea edo pasabide goratu bat egitea eskatu da	Udaltzaingoa	Gaurregun pasabide goratu bat ipintzeko aukera ezberdinen azterketa egiten ari da, pasabidea urte amaierarako egingo delarik
Arratebide 5-7-9an katuak daudela eta jendeak jaten ematen diela adierazi dute	Udaltzaingoa	Auzozainak inguru honetako peoretan honen inguruan udal-ordenantzak esaten duenari buruzko informazio orriak ipini zituen, hau da, bide publikoan janari utzi edo botatzea debekatuta dagoela. Gainera, auzozaina animaliei jaten ematen dietela esan zuten bizilagunekin hitz egiten egon zen.
Mekola kalearen sarbidea mugatzea eskatu da	Udaltzaingoa	Mekola kalea koexistentziako eremua da eta bertan oinezkoek lehentasuna dute jada
Itzioko aparkalekuaren sarreran lerro etena pintatzea eskatu da	Udaltzaingoa	Lerro jarriaren ezker aldean marra etenak margotzen dira eta berdin eskumako aldean bi aldeetatik arazorik bira egin ahal izateko
Auzoko batek dio bera ez dagoela ados Arratebide 2-4ko garajeen sarrerako plazan aparkatzea debekatzearekin	Udaltzaingoa	Aparkaleku hau bizilagunek eurek eskatuta kendu zen, ibilgailuek gurpildun aulkientzat tokirik uzten ez zutela esaten zutelako.
Egoitza bien artean oinezkoen pasabide bat jartzea eskatu da.	Udaltzaingoa	Bidearen trazadurak (bihurgunea dago) ez du gomendagarria egiten zebrabidea ipintzea, oinezkoen segurtasuna arriskuan jarriko litzatekeelako
Arratebidea saihesbidearekin elkartzen den lekuan dagoen seinaleak ibilgailuak ondo ikusten ez duela uzten adierazi da.	Udaltzaingoa	Gaia Diputazioari jakinarazi zitaion eta, irteeraren ikuspena hobetzeko, bi seinale kentzeko erabakia hartu zuten.

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andres Ospitalea 2012/11/15)

El Corte Inglés-era iristeko dauden seinaleak ez direla asko adierazi da.	Udaltzaingoa	El Corte Ingleserako seinaleak ipintzea, beste edozein enpresa pribatura joatekoen antzera, ez da Udalaren ardurapekoa baizik eta enpresena
Arratebide 18tik gora lerro hori bat dagoela eta aparkatzea debekatzen duen seinale bat, eta han beti daudela 3-4 ibilgailu aparkatuta. Horri zehapena ezartzea eskatu da.	Udaltzaingoa	Udaltzaingoa arau-hausteei dagozkien isunak ipintzen ditu euren berri daukanean.
Arratebide 18tik aurrera geratzen den tarte hori aparkaleku gisa jartzea eskatu da, 3 aparkaleku atera daitezkeelako.	Udaltzaingoa	Ardantza eta Amaña arteko bikoizketa eta estaldura lanen ondorioz egin beharreko trafiko aldaketek eragina izan dute
Legarregain kaleko 14an urak etengabe egiten duela ihes adierazi dute.	Zerbitzuak	Gipuzkoako Uraketik ura Legarregain 8tik datorrela ondorioztatzen dute, eta arazoa partikular batek sortu duenez, berari dagokio konpontzea. Gipuzkoako Uraketik etxejabeari abisua pasa diotela konfirmatzen dute
Legarregain kaleko 1ean, galtzada erdian dauden arketek zarata ateratzen dutela adierazi dute.	Zerbitzuak	Arketen estalduretan goma elastikoak ipini ziren zaratok ekidin edo behintzat ahalik eta gehien murrizteko
Arratebide 17 bisean dauden garaje batzuetan itoginak daudela salatu dute.	Zerbitzuak	Eskaileran erreparazio bat egiten da eta estolda-zuloa garbitzen da filtrazioak ekiditeko, honenbestez arazoa konponduta geratzen delarik.
Mirafloresen egoera txarrean dauden farola bi daudela adierazi dute; batakin oinarria apurtuta du eta bestea doblatuta dago arbola bat erori delako.	Zerbitzuak	Ez da lehentasunezko zat jotzen, argia ematen dutelako eta ez dagoelako jauzteko arriskurik. 2014.urtean zehar egiteko konpromisoa hartzen da, beti ere beste lan batzuk asko ere premia eta behar haundiagokoak direla kontuan hartuta.
Miraflores kaleko 9an trabatzen den arketa bat dagoela adierazi dute; hodia 3 zatitan apurtuta dagoela. Azken 3 hile hauetan birritan trabatu da, baina oraindik hodia aldatzeke dago.	Zerbitzuak	Gipuzkoako Urakek hodia libratu zuen eta, berriro trabatu ez den arren, 2014.urtearen hasieran hodia aldatzeko asmoa dago

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andres Ospitalea 2012/11/15)

Mekolako pasealekua egoera penagarrian dagoela adierazi da, zikina, pintadaz beteta eta lurra apurtua duelako.	Zerbitzuak	Mankomunitateari kexaren berri ematen zaio, eta ingurua garbitzera pasatzen da. Ideia inguru horri trenbide gaineko pasealekuaren itxura bera ematea da, Estaziño kaletik Ardantzako geltokira doan tartearen proiektua egin eta lanak egiten direnean. Bitartean, konponketa eta hobekuntza txikiak egingo dira.
Legarregain 2-4ko umeen jolaslekuko lore-askak hobeto mantentzea eskatu da	Zerbitzuak	Ureztatze automatikorik ez dagoenez ezinezkoa da lore-asko horiek hobeto mantentzea
Arratebide 13an organikoetarako dagoen edukiontzia alderantziz jarrita dagoela adierazi da.	Zerbitzuak	Ondo dagoenaren konprobazioa egin da.
Arratebideko eskailera mekanikoen lehenengo zatitik usain txarra datorrela adierazi da.	Zerbitzuak	Zulo bat denez ez dago soluzio bideragarririk, nahiz eta esan beharra dagoen pasealekuko lanekin arazoa konpontzeko aurreikuspena dagoela, euri-uren sareak orain dagoen sare unitarioa ordezkatzeko duelako.
Mirafloresetik Arrajolara bitarteko bidean hormigoizko arketa batzuk apurtuta daudela adierazi da; arbola-orriekin ezkutuan geratzen dira eta gidariek ez dituzte ikusten	Zerbitzuak	Bi arketa horiek konpondu dira
Trenbidearen eta Arratebide 2-4ko etxeen artean dagoen lorategia zaintzeke dagoela adierazi da, belar txarrak daude eta zaborra ere badago.	Zerbitzuak	Arrate-Bideko lorategian lanak egin ziren eta belar txarrak kendu ziren
Legarregain kaleko 13-15ean dagoen aldea garbitzea eskatu da.	Zerbitzuak	Mankomunitateak ingurua garbitu zuen eta urtarrilean Falch-a pasa zen.
Arratebide 2-4ko lorategian dagoen huntza kentzea eskatzen dute	Zerbitzuak	Huntzok moztu ziren, lan horiek 2013ko irailaren 16an amaitu zirelarik.

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andres Ospitalea 2012/11/15)

Legarregain 2-4an dagoen parkean banku edo eserleku gehiago jartzeko eskaera egin da.	Zerbitzuak	Ez dira banku gehiago ipini baina dagoena konpondu da
Itzioko aparkalekua garbitzea eskatu da.	Zerbitzuak	Mankomunitateari esan zitzaion eta orain astean behin garbitzen dute.
Vildosolaren txaletaren goiko aldean farola bat tapatzen duen palmera bat dagoela adierazi da	Zerbitzuak	Palmera hori lur-sailaren jabearena da, egin dezakegun bacará jabeari mozteko eskatzea da. Jabeari errekerimendua egin citación baina, erantzunik jaso ez genuenez, Brigadak erretiratu zuen.